

## EUKARISTIA, BERE BURUA EMOTEN DAUEN JAUNAREN SAKRAMENTUA

0. *Izenburu onen bidez Eukaristia Jaunaren sakrifizioa dala adierazi nai da. Eukaristiaren ospakizun eta dotriñaren istorian “sakrifizio” gai onek ainbat eztabaida eta txarto ulertze sortu izan ditu. Orain emen itz zabalagoa erabilliz, egia edo errealtate berbera adierazi nai dau: Jaunak bere burua emotea.*

1. *Alkartasun Barriko idazkietan, Eukaristia sortzeari dagokiozan testoetan, onako itzak erabilten dira. Ogiaren gainean: “nire gorputza” (Mt 26,26; Mk 14,22; Lk 22,19; 1Kor 11,24). “Emona” (Lk, 1Kor). “Zuekaitik” (Lk, 1Kor). “Munduaren biziagaitik” (Jn 6,51). “Guztiakaitik” (1Tim 2,6; 2Kor 5,14-15). “Guztiakaitik” (Eb 2,9). “Gugaitik” (1Ts 5,10). “Nigaitik” (Gal 2,20).*

*Ardaoaren gainean: “Alkartasunaren nire odola” (Mt 26,28; Mk 14,24). “Alkartasun barria nire odolean” (Lk 22,20; 1Kor 11,25), “alkartasun barri” esaldi onek Jeremias profetaren itun barriaren iragarpena gogoratzen dau (Jer 31,31). “Isuria” (Mt, Mk, Lk). “Askogaitik” (Mt, Mk). “Zuokaitik” (Lk). “Pekatuaren parkamenerako” (Mt). Emen herradiskidetzea esaten da beste era batera, Isaias profetaren itzaren oiartzun (Is 53,10.12).*

2. *Alkartasun Barriko beste testo batzuk. San Paulok Gal 2,20; 2Kor 5, 14; eta Eb, batez be 9-10 kapituluetan, argitzen dabe Kritoren bizitzaren eta eriotzaren salbamen esangurea eta*

sakrifizio zentzua. Baiña ugariak dira olako testoak. “Kristo, gure pazko-bildotsa, opari eskeiña izan da” (1Kor 5,7); “bere burua emon eban gure alde usain gozozko opari eta sakrifizio” (Ef 5,2). “Beronen odolaz ordain-bide egin eban Jaungoikoak siñisten dabementat” (Erm 3,25). “Bein betiko sartu zan santutegian, ez aker eta zekorren odolaz, bere odolaz baiño, betiko berrerospena lortuz” (Eb 9,12), eta orrela “itun barri baten bitarteko da” (Eb 9, 15). Au da benetako pazko-bildotsa, eta beronegan parte artzen da Eukaristian: “Artzen dogun eskerronezko kalizak ez al gaitu Kristogaz bat egiten beronen odolean? Eta zatitzen dogun ogiak ez al gaitu Kristogaz bat egiten beronen gorputzean? (1Kor 10,16).

3. Kristoren salbamen-ekintzari buruzko testo oneek leenengo kristauengandik jatorkez, “leenengo” itz au zabal arturik. Testootan argi asmatzen da Alkartasun Zaarreko sakrifizioen atzea. Erlejiño-kultura aretik etozan kristauak (leenenleengoak, Apostoluak, eta Paulo kristautasunaren teologo nagusia), Jesusen misterioa (errealidade sakona) erlejiño-kultura aren irudi eta baloreen artean ulertzen aalegintzen dira. Besterik egiterik be ez euken. Ori ziran eurak, ori zan euren ulermen mundua. Ulermen-gaitasun orretan gertatzen zan zelanbait Jesusen misterioa asmatzea. Guk begirunez irakurten ditugu aalegin orren ereduak, geuk be, gure ulermen munduan, areen egia-egiara urreratu nai dogula. Orretarako, orain, leenengo ta bein, Kristoren errealidade osoa begitu bear dogu bere ekintzaren esangurea zelanbait ulertzeko. Eta au ikusten dogu: ezin daikegula Kristoren eriotza bere berbikundetik eta bizitza osotik banandu. Kristoren persona, izate osoa da garrantzizkoa. Kristo bat baiño ez dago, bere izate osoan emona, eta eriotzaraiño emona bere eginkizunari guztiz zintzoa izateagaitik. Au da Seme maite eta kutuna (Mt 3,17; 17,5). Bere eriotzak munduaren pekatua eta zuzentasun-eza salatzen dau. Eta batera, bere aldetik, bere bizitza emona bere hetera daroa. Kristo bakar au, bizitzan eta erio-

tzan bat eta bakarra, da Aitak maite dauana. Semea Aitari emona izatea (eta munduan dauan eginkizunari emona izatea) ez da jazoten bortxazko eriotzean bakarrik, bere izate osoan baiño. Esan daiteke, edo esan bear da Seme maitea maiteagoa dala, aal bada, bertanbera izatean eta eriotzean, Jesusek bere zorientasunetan sufritzen daben seme eta alaba guztiei buruz diñoan lez. Baiña au ez odol eskaintzagaitik, edo Aitak olako eskaintzarik bear daualako. Jesusen emote orretan gertatzen da beste barik Itun Barriko testoetan “berradiskidetze” zein “herrerospen” eta beste irudiez azaltzen dan errealidadea: azken baten Jaungoikoaren eta gizakiaren arteko artuemon miña eta betea. Emote orretan billatu bear dogu beti amaibako artuemonaren errealidadea. Ulertzen ditugu bibliako eta erlejiño istoriako sakrifizioen esangurak eta kulturazko bearrak, baiña guri ez deuskue balio. Gure fedeak ezin daikez bere adierazpidetzat artu.

Emon dan Kristo onetan gertatzen da, beraz, “berradiskidetzatza”. Obeto esanda, emotea hera da berradiskidetzatza: Jaungoikoak, Kristogan, bat egiten dau gizakiagaz, beragan artzen dau giza-istoria beronen oiñaze eta pekatuagaz. Beste era batera azaltzeko, Kristoren izate guztian gertatzen da Jaungoikoa gizakiagana urreratzea, eta bere bizi eta maitasuna (Espiritua be deitzen dana) isurtzea. Kristogandik zorientasunak urtetzen dabe. Ez leenengo ta bein onei buruzko herbak, errealidadea baiño. Arek “Erreiñu” izenaz adierazoten dauana. Onek beste au be esan nai dau (era negatiboan errealidade bardiña adieraziz): “munduko pekatua” kentzeko etorri dala (Jn 1,29), anti-erreiñua suntsitzeko. Jainkoa Kristogan gizakiagana urreratzea, bere maitasuna isurtzea, au berau dogu “munduko pekatua kentzea”. Adierazpide guztiok errealidade bardiñera zuzentzen dira.

Olan emona dan Kristo au dogu azken afarian diñoskuna: Jan, au nire gorputza da-ta, emoten dana (neu naz neure burua emoten); au itun barriko odol isuriaren kaliza da.

Ikasleak eta leenengo kristauak Jaunaren berbizkunde ondoren asi ziran Eukaristia ospatzen. “Jaunaren afaria”, “ogia zaitzea” (alkarbanatutako ogia), eta geroago “eukaristia” (eskerak emotea) izenak emon eutsoezan. “Au nire gorputza da, emoten dana” esaten eben barrero, Jesusen berbak edo jarrerak gogoratuz, baiña ondo ekien ori orain Jaun berbiztuak esaten ebana, eta ez onezkero il aurretiko Jesusek. Olan izan balitz, leen jazotakoaren oroigarria izango litzakean bakarrik (ederra izan arren). Baiña egiaz orain jazoten zanaren oroigarria zan. Orain jarraitzen dau Jaunak ori esaten eta egiten. Jesusen bizitzaren egia osoa, aren eriotzaren errealidade sakona orain Jesus berbiztuagan dago. Orregaitik Jesus berbiztuak bere zauri lekuak erakusten ditu (Jn 20,27). Apokalipsi liburuan Jesus aintzaldia “bildots eraildu” lez agertzen da, eta zerutarren goratzarrea artzen dau: “Duiña da illa izan dan Bildots aalmena, aberastasuna, jakituria, indarra, dedua, aintza eta gorespna artzeko” (Apk 5,12). “Jesukristo da il zana; are geiago, biztu be egin zana, eta orain Jaungoikoaren eskuinaldean gure alde erreguka dagoana” (Erm 8,34). Ikusi, beste leku batzuen artean, Eb 7,25; 9,24: Kristo il eta berbiztuak, geiago ilko ez danak, “otoiz egiten dau gure alde”. Au da, bere bizitzan eta erioztan izan dana izaten jarraitzen dau.

Alde batetik, argi agiri da Eukaristiak kurutzeko erioztzagaz daukan erlazioa. Baiña, batera, ain egia da, “au nire gorputza da, emoten dana” diñoana azken afaria ikaslelekin adiskidetsu ospatzen dauan Kristo dala, eta gero, orain eta betiko, Kristo berbiztua. Trentoko Eliz-batzar nagusiak (egiaz, tradizio luzeari jarraituz), istori egoera aretan (kristau espiritu egoera aretan) batez be kurutzean ipiñi zituan begiak, Eukaristian “sakrifizio” a barrero eskaintzen dala irakasteko. Egia sakona datza orretan. Baiña bearbada larregi azpimarratua, edo errealidadearen ikuspegi osoa egoki zaintzen ez dala. Egitez, ideia orren inguruan sortu diran eztabaidak, sakrifizio aren presente izateko erak azaltzeko teoriak, eta Meza Santu inguruko praktika eta deboziñoak (borondate onekoak) ez dabe transmititzen egoki Itun

Barriko mezua, eta ez dabe zentzuzko eta maitagarri egiten misterio bera (errealidade sakona). Vaticano II batzarrak osotu egiten dau ikuspegi a berbizkunde aldetik ikusirik (SC 5.107). Egia oni eutsi bear jako beti: Kristo herbiztuagan bere bizitza osoa gordeten da.

4. Eukaristi narrazioaren arabera, Jesusek olan amaitzen dau: "Egizue au neure oroigarri". Ori egitean eta esatean ez dau azaleko erritoren bat burutzen: Arek egiten dauana errealdadez beterik dago, egite eta esate orreetan bere burua eskaintzen dau benetan, bera dan guztia emoten dau. Ez dago alderik sinbolo edo señaile eta esangura (errealidade) artean: sinbologia errealdadearen adierazpidea da guztiz. Zer da, beraz guri eskatzen deuskuna "egizue au" esanez"? Beragaz identifikatzea, biotzean daroan Jainko eta giza errealdadeaz identifikatzea. Jesusek berak bizitzaldian, eta asken afarian bertan, eta gero Itun Barri guztiak egiten dauana: eskerrak emon eta biotzetiko goralpenak zuzendu Aitari ("eukaristiak" esan gura dauan lez), Erreiñuaren asieragaitik. Eukaristian parte artzea, alkartasun maaiako ogi eta ardao konsagratuak alkarbanatzea, Jesusen personaren doaia artzea da eta bere emotean parte aktiboa izatea: Eukaristian ezin daiteke parte artu norbera emon barik. Beragaz maai inguruan (bizitzako maai inguruan), zoriontsuak deitzen dituan guztiakaz batera, jesarita. Zentzu onetan da Eukaristia benetan eta sakonen Kristoren eta Elizaren "sakrifizioa".

5. Zein da Jesusek biotzean daroan errealdadea, bere bizia-  
ren, iltearen (eta berbiztearen) arrazoi osoa dan errealdadea? Era ezbardinietan azaldu daiteke, izen ezbardinak emon daite-  
kioz. Jesusek berak Erreiñua be deitzen dau. Jesus Erreiñuari emona: Aitari eta onen "zuzentasunari" emonda, au da, Jesusen beraren barne eta bizi jarrerak. Jesus seme-alaba saka-  
banatuak batzen (Jn 11,5) Erreiñuko maaiaren inguruan. Tradiziño osoan, eta Vaticano II.nak diñoanez (LG 10), Eukaristia sakramentuen sakramentua da, beste guztiak bero-

negana zuzentzen dira, euren azken elburua adierazten daua-lako: Erreñuko neba-arreben alkar jaia. Ez da, beraz, aukera apetzakoa (arbitrarioa) ogiak eta ardaoak Jesusen “gorputz” eta “odola” errepresentatzea, eta, ondorioz, bere “sakrifizioa”. Jan-edanak, alkar-maia eta adiskideakaitik norbera emotea emotea esan gura dabe, eta orretan gertatzen da euren berezko esangura sakramentalak. Ogiak eta ardaoak Erreñuan parte artzea idurikatzen dabe berezkotasunik andienaz, nebarreben arteko oturuntza. Maia orretan Kristo dago erdian, emona eta berbiztua, esaten: berradiskidetza eta anaitasuna alkar-banatzan dan lekuan an nago ni. Eukaristia Kristo emona da eta, batera, eta orrexegaitik, anaitasun alkar-banatuak. Kristo emonak Erreñuko anaitasuna sortzen dau.

6. Ez da arbitrarioa “presentzia erreala”. Presentzia orrek, eta sakramentu guztietakoak, Jesus berbiztu aintzatsuan dau oiñarria eta zentzun guztia: “Ni zuokaz izango nozue beti munduaren azkenerarte” (Mt 28,20). Jesusen izatetik sortzen da bere presentzia. Jesusen presentzian siñestea Beragan siñestea da. Gero, Jesusen presentzia beti da “erreala”, benetakoa. Benetan daukagu geugaz edonon eta beti. Baiña sakramentuetan presentzia ori, giza-eraz, gizatu, istorizatu, markatu egiten da. Eukaristiari buruz istorian zear Elizak azpimarratu dauan presentzia “errealak” bere apartekotasuna emendik artzen dau: bere berezko esanguraz Erreñuaren maia eta jaia izatetik. Era berean, Kristoren sakrifizioa aparteko eraz errepresentatzea be emendik dator: Azken afariko nebarreben maian Kristo aparteko eraz emona izatetik, eta emote ori kurutzean burutua izatetik. Erreñuaren gorengo eta azken presentziak Kristo emonaren gorengo presentzia eskatzen dau: beti da emona Kristo, baiña emote orrek kurutzean dau koroia. Kristo berbiztuaren presentziak beragan zaintzen dau betiko azken emote ori. “Fisikalismoak, “materialismoak” desbideratu egin izan dau “presentzia erreala”, eta “sakrifizio” izatea, buruaste, eztabaida eta banakuntzei bide emonez. Desbideratu bere presentzia “sa-

kramentala"izatetik. Eta desbideratu, batez be, Erreiñuko maaia izatetik. Bardin, kurutzeko presentzia ia fisikoa lortu eta azaldu naiean, Kristo herbiztuaren hetiko emotea laiñotu egin zan, eta, geiago dana, emote orrek Erreiñuko maaian alkartzen gaituala ia aaztu. Guk ez dogu presentzia gitxiagorik siñisten, eta ez dogu Jesus kurutzeratua baiño ezagutzen (1Kor 2,2), batez be Eukaristian. Baiña zelako presentzia dogun da auzia. Eukaristiak Erreiñiko maaia izatean dauka bere seriotasun guztia. Or gertatzen bere egia, eta gure fedearen egia. Onako balio dabe guztiz ain zuzen be Jesusen herbak: "Espiritua da bizia emoten dauana. Aragia ez da ezertarako. Esan deusuedazan herbak espiritu eta bizi dira" (Jn 6,63). Erritoak ez dabe ezertarako balio, Jesusen Erreiñu jarreratan sartzea da areen egia (ona emen, beste era batera esanda, fedea edo siñismena).

7. Eukaristian, onela ulerturik, erlaziñorik zuzenena eta barrukoena daukagu Jaunagaz. "Emoten dana" dalako aparteko eraz. Batera, Eukaristia Elizaren egiterik unibersalena eta mi-siolaricna dogu, emon egiten dan Kristoren maaia unibersala danez: or dago Bera gure erdian "serbitzen" (Lk 22,27). Eukaristiak Eliza zer dan agertzen dau. Eta alderantziz: Eliza zer dan (kristau siñismena zer dan) ulertu eta onartu barik, ezin daiteke Eukaristia ulertu eta ospatu (oikune, errito uts biurtu da). Pazko errealidade anaikor onek argitzen dau leenengo kristauak Eukaristia biotz xalotasunez, Jainkoa goralduz, eta batez be poztasunez ospatzea (Ap Eg 2, 46-47). Jaungoikoaren komunio (emote eta alkartze) salbagarria da eta Erreiñuko poztasun eragingarria.

*Luis Arostegi*